

Pintada homofoboak agertu dira Atharratzeko Le Trinquet tabernan

AGENTZIAK/LA HAINE :: 02/06/2024

Gunea kudeatzen duen elkarteak azaldu duenez, sexu-askatasunari eta Lgbtqia+ kolektiboko pertsonen eskubideei buruzko jardunaldia egin zuen apirilean bertan, eta horrekin lotzen dute erasoa.

Prefosta elkarteak salatu duenez, pintada homofoboak agertu dira Atharratzeko Le Trinquet tabernan. Lokala kudeatzen duen elkarteak Bekat'uros jaiaren bigarren edizioa antolatu zuen apirilean, LGBTQIA+ pertsonen eskubideei eta sexu-askatasunari buruzko jardunaldia, bazkari eta festarekin, kolektiboaren ikusgarritasunaren aldeko apustua eginez. Elkartearen ustez, euren lanaren aurkako erasoa izan da tabernaren leihoetan egindako pintaketa horiek; izan ere, Atharratzeko kultura jarduera eta bizitza sozialean oso aktiboa da Prefosta elkarteak. Facebookeko orrian argitaratu dute pintaden argazkia, ondorengo mezuarekin: "Jintxoria! Pistolet Debrü batek kontrabentak arratintatü deizkü! Kolorez tronpatü beita, tzaiste astelehen arratsan 19:00tan züen kexüa erakustea gurekin. #homofobiadelituada". Gertakari hauek salatze elkarretaratzea deitu dute astelehenerako, 19:00etan, tabernaren atarian.

<https://eh.lahaine.org/pintada-homofoboak-agertu-dira-atharratzeko>